6 AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA 6
ADMINISTRACION DE LA COMUNIDAD AUTONOMA

EUSKO JAURLARITZA

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

Hitzarmen Kolektiboak Agindu zk. 83/08-F. 1582

ERABAKIA, 2009ko urtarrilaren 21ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gipuzkoako Lurralde ordezkariena. Honen bidez ebazten da 2008-2010erako Gipuzkoako Ostalaritzaren hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea zk. 2000705).

AURREKARIAK

Lehenengoa: 2008ko abenduaren 11n aipatutako hitzarmena aurkeztu da, ordezkaritza honetan, Asociación de Hosteleríak eta ADEGIk, enpresarien ordezkapenean, eta ELA, LAB, CC.OO. eta UGT sindikatuek, langileen ordezkapenean, 2008ko azaroaren 24an sinaturik.

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Delegación Territorial de Gipuzkoa

Convenios Colectivos N.º Orden 83/08-F. 1582

RESOLUCIÓN de 21 de enero de 2009, de la Delegada Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Convenio Colectivo de Hostelería de Gipuzkoa de 2008-2010 (código de convenio n.º 2000705).

ANTECEDENTES

Primero: El día 11 de diciembre de 2008 se ha presentado en esta delegación el convenio citado, suscrito por la Asociación de Hostelería y ADEGI, en representación de los empresarios, y por ELA, LAB, CC.OO. y UGT, en representación de los trabajadores, el pasado 24 de noviembre de 2008.

Bigarrena: 1983ko ekainaren 6ko Aginduak aldatzen zuen Laneko sailburuaren 1982ko azaroaren 3ko Aginduaren 8. artikuluak aurreikusitako errekerimendua burutu (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* abenduaren 21ean eta ekainaren 7an argitaratuak, hurrenez hurren), artikulu jakin bat konpontzeko, eta aipatu errekerimendua bete zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa: Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikuluak, martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegilea (1995-3-29ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, otsailaren 12ko 44/2002 Dekretuko 22.1.g artikuluak –Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2002-2-20ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*)– dionarekin bat etorriz eta martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuarekin (1981-4-2ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretuarekin (1981-6-6ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) –hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak– lotuta.

Bigarrena: Sinatutako hitzarmenak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

ERABAKI DUT

Lehenengoa: Hitzarmen Kolektiboen Erregistroaren Gipuzkoako Lurralde Atalean inskribatu eta gordailu egiteko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena: Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadin xedatzea.

Hirugarrena: Ebazpen honen aurka, adminiztrazio -bidea amaitzen ez duena, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren aurrean, hilabeteko epean, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 114 artikuluan eta hurrrengoetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Donostia, 2009ko urtarrilaren 21a.—Gemma Jauregi Beldarrain, Lurralde Ordezkaria.

(36233) (1140)

GIPUZKOAKO OSTALARITZAREN HITZARMEN KOLEKTIBOA 2008-2010

I. KAPITULUA

EREMUA

1. artikulua. Lurralde eremua.

Honako hitzarmen kolektibo hau Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan izango da aplikagarri.

2. artikulua. Funtzio eremua.

Oinarrizko hitzarmen kolektibo honek honako jarduera hauengan izango du eragina:

1. Jatetxe, bazkari-etxe, «catering» eta janaria ematen duten taberna guztiak.

2. Kafetegiak, kafe-tabernak, taberna amerikarrak, whiskitegiak, garagardotegiak eta janaririk ematen ez duten gainerako tabernak.

Segundo: Se ha efectuado el requerimiento previsto en el art. 8 de la Orden de 3 de noviembre de 1982, del Consejero de Trabajo, modificada por Orden de 6 de junio de 1983 (publicadas en el *Boletín Oficial del País Vasco* de 21 de diciembre y de 7 de junio, respectivamente), para la subsanación de un determinado artículo, y se ha cumplimentado.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero: La competencia prevista en el art. 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo (*Boletín Oficial del Estado* de 29-3-1995) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 24.1.g del Decreto 315/2005, de 18 de octubre (*Boletín Oficial del País Vasco* de 27-10-2005) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en relación con el Decreto 39/1981, de 2 de marzo (*Boletín Oficial del País Vasco* de 2-4-1981) y con el Real Decreto 1040/1981, de 22 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 6-6-1981) sobre registro de convenios colectivos.

Segundo: El convenio ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

Primero: Ordenar su inscripción y depósito en la Sección Territorial de Gipuzkoa del Registro de Convenios Colectivos, con notificación a las partes.

Segundo: Disponer su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Tercero: Contra la presente resolución, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso de alzada ante el Director de Trabajo y Seguridad Social en el plazo de un mes, de acuerdo con lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Donostia-San Sebastián, a 21 de enero de 2009.—La Delegada Territorial, Gemma Jauregi Beldarrain.

(36233) (1140)

CONVENIO COLECTIVO DE HOSTELERÍA DE GIPUZKOA PARA 2008-2010

CAPÍTULO I

ÁMBITO

Artículo 1.º Ámbito Territorial.

El presente Convenio Colectivo es de aplicación en todo el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 2.º Ámbito Funcional.

Las actividades afectadas en el presente convenio colectivo son:

1. Restaurantes, casas de comidas, caterings y tabernas que sirvan comidas.

2. Cafeterías, cafés-bares, bares americanos, whiskerías, cervecerías y tabernas que no sirvan comidas.

3. Hotel, ostatu, hotel-egoitza, ostatu-egoitza, aterpetxe, pausaleku, hotel-apartamentu, motel, termategietako hotel, opor-hiri eta camping-ak.

4. Apopilo-etxe, ostatu, estari-etxe eta bentak.

5. Txokolategi, izoztegi eta te-aretoak.

6. Dantzaleku, diskoteka, taulatu flamenko eta dantza aretoak.

7. Kasinoak.

8. Bilar eta jolas aretoak.

3. artikulua. Langile eremua.

2. artikuluan adierazitako jardueretan diharduten enpresetan lan egiten duten langile guztiei aplikatuko zaie, Langileen Estatutuko 1.3 c) artikuluan aurreikusitako terminoetan, sozietate forma juridikoa duten enpresetako administrazio organoetako kontseilari edo kide gisako karguak besterik betetzen ez dituztenei izan ezik.

Goi-mailako zuzendaritzako langileei dagokienez, bere lan harremana arautzen duen arautegi berezian xedatutakoari jarraituko zaio.

4. artikulua. Denbora eremua.

Hitzarmen honek 2008ko urtarrilaren 1etik 2010ko abenduaren 31 arte iraungo du, berariaz iraunaldi desberdin bat ezarria duten artikuluek izan ezik. Hitzarmenaren amaiera automatikoki iragarriko da.

5. artikulua. Eraginak.

Honako oinarrizko hitzarmen kolektibo honek indar arautzailea du eta bere indarraldian zehar bere eremu funtzionalean biltzen diren enpresa eta langile guztiak behartzen ditu. Hori guztia Langileen Estatutuaren 82, 83.1 eta 84. artikuluetan ezarritakoari jarraiki eta enpresak hitzarmen eta itunak burutzeko aukeraren kaltetan izan gabe.

Testu honetan hitzartutako onura ekonomiko nahiz bestelakoak aurretik enpresa bakoitzean ezarritakoek zurgatu eta konpentsatu ahal izango dituzte.

Era berean, zurgatu eta konpentsatu ahal izango dituzte etorkizunean ezar daitezkeen egoera eta hobekuntzek.

Bi kasuetan, zurgapenak nahiz konpentsazioak orotara burutuko dira eta urteko konputuaz.

Hala eta guztiz ere, orotara eta urteko konputuan, testu honetan hitzartutakoen aldean onuragarriagoak diren baldintzak ekartzen dituzten une honetan enpresetan ezarritako itun, klausula edo baldintzak «ad personam» mantenduko dira hertsiki.

II. KAPITULUA

ORDAINSARIAK; ALDEZ AURREKO BARNE-BILKETA; ALOKAIRUAK; APARTEKO HABOROKINAK; ANTZINATASUNA; APARTEKO ORDUAK; JAIEGUNETAKO LANAK; APARTEKO ZERBITZUAK; GARRAIO PLUSA

6. artikulua. Lanbide-taldeak, lanbide-kategoriak sailkatzea eta horiek definitzea.

LEHENENGO SEKZIOA. Eginkizunaren araberako sailkapena

1. Hitzarmen honek ukitutako langileak, dituzten eginkizunen arabera, jarraian datozen lanbide-taldeetan sailkatuko dira, lanbide-egitura berriak produkzio-egitura arrazoizkoagoa lortzea helburu duela kontuan izanda, hori guztia langile bakoitzari dagokion duintasunaren, sustatzeko aukeraren eta bidezko ordainsariaren kaltetan izan gabe.

3. Hoteles, hostales, hoteles-residencias, hostales-residencias, albergues, paradores, hoteles-apartamentos, residencias-apartamentos, moteles, hoteles en estaciones termales, ciudades de vacaciones y campings.

4. Pensiones, fondas, casas de huéspedes y posadas.

5. Chocolaterías, heladerías y salas de té.

6. Salas de fiesta, discotecas, tablaos flamencos y salones de baile.

7. Casinos.

8. Billares y salones de recreo.

Artículo 3.º Ámbito Personal.

El presente convenio será de aplicación para todos los trabajadores que presten servicios en las empresas dedicadas a las actividades indicadas en el artículo 2.º, excepto a los que se dediquen al mero desempeño del cargo de consejero o miembro de los órganos de administración de las empresas que revistan la forma jurídica de sociedad, en los términos previstos en el artículo 1.3 c) del Estatuto de los Trabajadores.

En cuanto al personal de alta dirección, se estará a la legislación específica que regula su relación laboral.

Artículo 4.º Ámbito Temporal.

La vigencia del presente Convenio será del 1 de enero de 2008 al 31 de diciembre del año 2010, salvo para aquellos artículos en los que expresamente se haya señalado una vigencia distinta. Este Convenio quedará automáticamente denunciado a su finalización.

Artículo 5.º Efectos.

El presente convenio colectivo tiene fuerza normativa, y obliga por todo el tiempo de su vigencia a la totalidad de empresas y trabajadores comprendidos en su ámbito funcional, todo ello de acuerdo con lo establecido en los artículos 82, 83.1 y 84 del Estatuto de los Trabajadores y, sin perjuicio de poder realizarse convenios y pactos de empresa.

Las mejoras económicas y de otro orden convenidas en este texto, serán absorbibles y compensables por las que estuvieran implantadas en cada empresa con anterioridad.

De igual forma, podrán ser absorbidas y compensadas por aumentos y mejoras que puedan establecerse en el futuro.

En ambos casos la compensación y absorción operará en conjunto y en cómputo anual.

Sin embargo, los pactos, cláusulas o situaciones actualmente implantadas en las empresas que impliquen, en su conjunto y en cómputo anual, condiciones más beneficiosas respecto a las convenidas en este texto, se mantendrán estrictamente «ad personam».

CAPÍTULO II

RETRIBUCIONES; PREVIO ENCUADRAMIENTO; SALARIOS; GRATIFICACIONES EXTRAORDINARIAS; ANTIGÜEDAD, HORAS EXTRAORDINARIAS; TRABAJOS EN DÍAS FESTIVOS; SERVICIOS EXTRAORDINARIOS; PLUS DE TRANSPORTE

Artículo 6.º Grupos Profesionales, encuadramiento de las categorías profesionales y su definición.

SECCIÓN PRIMERA. Encuadramiento por su función

1. Los trabajadores afectados por el presente Convenio, en atención a las funciones que desarrollen serán clasificados en los siguientes Grupos Profesionales teniendo en cuenta que la nueva estructura profesional pretende obtener una más razonable estructura productiva, todo ello sin merma de la dignidad, oportunidad de promoción y justa retribución que corresponde a cada trabajador.

- I. Taldea. Harrera-leku, Etxezaintza eta Administrazioko langileak.

— A azpitaldea: Harrera-lekuko langileak:

Harrera-lekuko burua.

Harrera-lekuko bigarren burua.

Harreragilea.

Harrera-lekuko laguntzailea.

— B azpitaldea: Etxezaintzako langileak:

Lehen etxezaina.

Bigarren etxezaina.

Gaueko etxezaina.

Etxezainaren laguntzailea.

Telefonista.

Sarrera eta zerbitzuko atezaina.

Kotxezaina.

Igogailuzaina.

Gaueko jagolea.

Kanpoaldeko zaindariak.

Ekipaje-morroia/Mandataria.

— C azpitaldea: Administrazioko langileak:

Administrazio-burua.

1. mailako administraria.
2. mailako administraria.

Administrari laguntzailea.

— D azpitaldea: Merkataritzako langileak:

Merkatari burua.

1. mailako merkataria.
2. mailako merkataria.

- II. Taldea. Sukaldeko langileak.

Sukalde-burua.

Bigarren sukalde-burua.

Sorta-burua/sukaldaria.

Plantxazaina/parrilazaina.

Gozogilea.

Kafegilea.

Sukalde-laguntzailea.

Gozogilearen laguntzailea.

Plantxazaina/parrilazainaren laguntzailea.

Eltzezaina.

Pintxea.

Zerbitzu kolektiboetako laguntzailea.

- III. Taldea. Janlekuko eta barrako langileak.

Janleku-burua edo mahaizaina.

Salmahaiko lehen arduraduna.

Tabernaria.

Bigarren janleku-burua.

Bigarren tabernaria.

Sektore-burua.

Zerbitzaria/saltzailea.

- Grupo I. Personal de recepción, conserjería y administración.

— Subgrupo A: Personal de Recepción.

Jefe de Recepción.

Segundo Jefe de Recepción.

Recepcionista.

Ayudante de Recepción.

— Subgrupo B: Personal de Conserjería.

Primer Conserje.

Segundo Conserje.

Conserje de noche.

Ayudante de Conserje.

Telefonista.

Portero de acceso y servicio.

Portero de coches.

Ascensorista.

Vigilante de noche.

Guardas del exterior.

Mozo de equipajes/Botones.

— Subgrupo C: Personal de Administración.

Jefe de Administración.

Administrativo de 1.ª

Administrativo de 2.ª

Auxiliar Administrativo.

— Subgrupo D: Personal Comercial.

Jefe Comercial.

Comercial de 1.ª

Comercial de 2.ª

- Grupo II. Personal de cocina.

Jefe de Cocina.

Segundo Jefe de Cocina.

Jefe de partida/Cocinero.

Planchista/Parrillero.

Repostero.

Cafetero.

Ayudante de Cocina.

Ayudante de Repostero.

Ayudante de Planchista/Parrillero.

Marmitón.

Pinche.

Auxiliar de colectividades.

- Grupo III. Personal de comedor y barra.

Jefe de Comedor o Maestresala.

Primer Encargado de Mostrador.

Barman.

Segundo Jefe de Comedor.

Segundo Barman.

Jefe de Sector.

Camarero/Dependiente.

Ardozaina.

Ekonomato eta ardandegiko arduraduna.

Tabernariaren laguntzailea.

Zerbitzari/saltzailearen laguntzailea.

Ekonomato eta ardandegiko laguntzailea.

Kafetegiko laguntzailea.

Zilarreriako langileak.

Areto-burua (catering).

Bigarren areto-burua/ekipo-burua (catering).

- IV. Taldea. Pisuetako langileak.

Lehen mailako gobernanta.

Pisuetako etxezaina.

Bigarren mailako gobernanta.

Ostatuetako pisuen arduraduna.

Lentzeria eta ikuztegiaren arduraduna.

Pisuetako zerbitzaria/gelako morroia.

Plantxa, joskintza, pasaratze, lentzeria eta ikuztegiko langileak.

Garbiketa-langileak.

- V. Taldea. Mantenimenduko langileak.

Lanen arduraduna.

Mekanikariak/berogailu-teknikariak.

Mekanikaria/berogailu-teknikarien laguntzailea.

Gidaria.

Lorazaina.

2. Aurreko puntuan aipatzen diren ostalaritza-jardueretako lanbide-kategoria guztiak 1. eranskinean ezarritako ordainketa-mailetara adskribituko dira eta kategoria bakoitzari 2. eranskinean zehazten diren maila bakoitzari dagozkion gutxienezko kopuruak aplikatuko zaizkio.

Erabaki hau sinatzen denetik aurrera, enpresek, indarrean dagoen legezko araudiaren babesean, kontratazio berriak egin ahal izango dituzte, hurrenez hurren suertatzen diren ezintasun iragankor, opor, lizentzia, baimen eta eszedentziako egoeretatik eratorritako hutsegiteen ondorioz sortzen diren lanpostu hutsak betetzeko asmoz. Langile horiek, hasiera batean, bete beharreko lanpostuaren kategorian barne hartu beharko dira. Nolanahi ere, aipatutako langileek hurrengo lanpostu hutsak bete ahal izango dituzte, horiek hasierako kontratazioaren lanpostu hutsari dagokion lanbide-talde desberdinean barne hartuta badaude ere. Jaso beharreko alokairua ez da inola ere lehen lanpostu hutsari dagokiona baino txikiagoa izango eta bete beharreko ondorengo lanpostu hutsetako bat hasierakoa baino ordainketa-maila altuagokoa bada, kategoria altuagoko lanpostu hutsaren kategoriari dagokion alokairua aplikatuko zaio.

3. Aurreko kopuruen barruan ondoko hauek sartzen dira:

a) Hasierako edo finko, kasuak kasu, deitutako alokairuak.

b) Horien eta lanbidearteko gutxienezko alokairuaren arteko diferentzia, hala badagokio.

c) Dagoeneko desagertutako zerbitzuari dagokion portzentajeen gaineko antzinako partaidetza.

d) Alokairu-osagarri pertsonalak, ondoko hauek salbuetsita: Antzinatasuna, lanpostu jakin batzuei buruzkoak, bai kopuruagatik bai kalitateagatik bai eta aipatutako lanpostuen

Sumiller.

Encargado de Economato y Bodega.

Ayudante de Barman.

Ayudante Camarero/Dependiente.

Ayudante de economato y bodega.

Ayudante de cafetería.

Personal de platería.

Jefe de Sala (Caterings).

Segundo Jefe de Sala/Jefe de Equipo (Caterings).

- Grupo IV. Personal de pisos.

Gobernanta de primera.

Mayordomo de pisos.

Gobernanta de segunda.

Encargado de pisos en pensiones.

Encargada de lencería y lavandería.

Camarero pisos/Mozo de habitación.

Personal de plancha, costura, zurcidos, lencería y lavandería.

Personal de limpieza.

- Grupo V. Personal de mantenimiento.

Encargado/a de Trabajos.

Mecánicos/Calefactores.

Ayudante de Mecánico/Calefactor.

Conductor.

Jardinero.

2. Todas las categorías profesionales de las actividades de hostelería relacionadas en el punto anterior se adscribirán a los niveles retributivos establecidos en el anexo 1 y a cada una de las categorías se le aplicarán las cuantías mínimas correspondientes a cada nivel y especificadas en el anexo 2.

A partir de la firma del presente acuerdo, las empresas podrán realizar nuevas contrataciones, al amparo de la normativa legal vigente, al objeto de cubrir vacantes que se produzcan por ausencias derivadas por situaciones de I.T., vacaciones, licencias, permisos y excedencias que se produzcan de manera sucesiva. Estos trabajadores deberán ser encuadrados inicialmente en la categoría del puesto a cubrir. No obstante, estos mismos trabajadores podrán cubrir sucesivas vacantes aun cuando las mismas estén encuadradas en distinto grupo profesional al de la vacante de la contratación inicial. El salario a percibir, en ningún caso podrá ser inferior al de la primera vacante, y si alguna de las posteriores vacantes a cubrir fuera de nivel retributivo superior a la inicial, se le aplicará el salario correspondiente a la categoría de la vacante de categoría superior.

3. Las cantidades anteriores comprenden:

a) Los salarios antiguamente denominados iniciales o fijos según los casos.

b) La diferencia en su caso entre los mismos y el salario mínimo interprofesional.

c) La antigua participación en el porcentaje del servicio ya desaparecido.

d) Los complementos salariales de tipo personal exceptuando la antigüedad, los relativos a determinados puestos de trabajo bien sean por cantidad o calidad o bien por circunstancias

egoera bereziengatik ere, gaueko 10etatik goizeko 6ak bitarteko lanaldiari –gauekotasuna– buruzko egoerak barne direla, 17. artikuluan adierazitako zehaztasunekin.

e) Aparteko haborokinak, urteko zenbaketari buruzko taulak barne direla.

Alokairu-maila horiei, hala badagokio, ondoko kontzeptuok gaineratuko zaizkio:

1. Antzinatasuna.

2. Garraio-plusa.

3. Aparteko orduak.

— Ordainsariak:

* Ordaintzeko era.

Alokairuak astero, hamar egunero, hamabostaldiro edo hilabetero ordainduko dira.

Enpresek, enpresa batzordearekin edo, hala badagokio, langileen ordezkariekin adostasunean, ezarritako ordainaldiak aldatu ahal izango dituzte.

* Aurrerakinak.

Langileak, dagoeneko egindako lanagatik, konturako aurrerakinak jaso ahal izango ditu, alokairuari dagokion zenbatekoaren %90 gainditu gabe, aldez aurretik horren beharra justifikatu ondoren.

BIGARREN SEKZIOA. Eginkizunak definitzea

Eginkizunak definitzeari dagokionez, IX. eranskinean zehaztutakoari jarraituko zaio. Aipatutako definizioa adierazgarria eta orientagarria besterik ez dela kontuan hartuta, ez da 23. artikuluan aipatutako mugikortasun funtzionalaren kalterako izango.

7. artikulua. Aparteko haborokinak.

Oinarrizko hitzarmen kolektibo honek ukitutako langile guztiek erregelamenduzko bi aparteko pagak hartuko dituzte, baita antzinatasunari dagokiona ere, bidezko balitz, hilabetero hainbanatuta, alderdiek aurkakoa erabiltzen ez badute behintzat, azken kasu honetan uztailaren 15ean eta abenduaren 15ean ordainduko direlarik.

Hitzarmenak, bere kasuan, globala izan beharko du, enpresako plantila osoa ukituko duelarik.

8. artikulua. Antzinatasuna.

Antzinatasun-saria III. eranskinean aurreikusitako kopuruan ordainduko da hirurtekotan.

Eskuratu beharreko hirurtekoen gehienezko kopurua 10ean ezarri da. Aipatutako zenbatekoa gainditzen den kasuetan, baldintzarik onuragarriena errespetatuko da, aipatu hirurtekoak 78.07.31ko dataz izoztuta geratu direla ulertuko delarik.

9. artikulua. Aparteko orduak.

Laneko arau orokor gisa ezin izango da parteko ordurik egin, nahiz eta, ezinbesteko arrazoiak edota produkzio puntaldiak, ustekabeko hutsegiteak, txanda aldaketak edo mantenimendu-behar zorrotzak direla eta, horiek egitea beharrezkoa suertatzen den edota beraien ordez aldi baterako kontratazioak edo denbora partzialekoak egitea ezinezkoa den egoeretan salbuespena egingo den. Horri dagokionez, enpresa bakoitzean langileen legezko ordezkaritzak eta bertako zuzendaritzak aurreko atalean adierazitako kasuetan barne har daitezkeen balizkoak finkatuko dituzte.

específicas de tales puestos, incluidas las circunstancias de trabajo durante el período comprendido entre las 10 de la noche y las 6 de la mañana –nocturnidad– con las precisiones en el art. 17.º

e) Las gratificaciones extraordinarias, incluidas en las tablas de cómputo anual.

Deberán añadirse, en su caso, a tales niveles salariales, los siguientes conceptos:

1. La antigüedad.

2. El Plus de transporte.

3. Las horas extraordinarias.

— Retribuciones:

* Forma de pago:

El pago de salario se efectuará por semanas, decenas, quincenas o meses.

Las Empresas podrán variar de conformidad con el Comité de Empresa o Delegados de Personal, en su caso, los períodos de pago establecidos.

* Anticipos:

El trabajador tendrá derecho a percibir anticipos a cuenta por el trabajo ya realizado, sin que puedan exceder del 90 por ciento del importe del salario, previa justificación de su necesidad.

SECCIÓN SEGUNDA. Definición de funciones.

En cuanto a la definición de funciones se estará a lo especificado en el anexo IX teniendo en cuenta que las mismas son meramente enunciativas y orientativas, no suponiendo ello una merma en cuanto a la movilidad funcional referenciada en el artículo 23.º

Artículo 7.º Gratificaciones Extraordinarias.

Todos los trabajadores a que afecta este Convenio colectivo percibirán las dos pagas extraordinarias reglamentarias más la antigüedad en su caso, prorrateada mensualmente, salvo acuerdo contrario entre las partes, en cuyo último caso se harán efectivas el 15 de julio y 15 de diciembre.

El Convenio, en su caso, deberá ser global, afectando a la totalidad de la plantilla de la empresa.

Artículo 8.º Antigüedad.

El premio de antigüedad se remunerará en forma de trienios en la cuantía prevista en el Anexo III.

El tope máximo de los trienios a percibir se establece en 10. En los casos en que actualmente se supere esta cifra, se respetará la condición más beneficiosa, entendido que los citados trienios quedarán congelados en fecha 31.07.78.

Artículo 9.º Horas extraordinarias.

No podrán efectuarse, como norma general de trabajo, horas extraordinarias, quedando exceptuadas aquellas situaciones en que por causas de fuerza mayor o por existir períodos punta de producción, ausencias imprevistas, cambios de turno o necesidades estrictas de mantenimiento, fuese necesaria su realización y no fuera posible su sustitución por contrataciones temporales o a tiempo parcial. A este respecto, en el seno de cada Empresa, la representación legal de los trabajadores y la Dirección de ésta, determinarán los distintos supuestos que sean incluibles en las causas señaladas en el apartado anterior.

Nolanahi ere, langileen delegatuek eta enpresa batzordeko kideek egin diren aparteko orduen eta horiek eragin dituzten arrazoien berri izango dute hilero. Informazio hori enpresak sinatu eta zigilatuko du.

Enpresako zuzendaritzaren eta langileen ordezkaritzaren edota, halakorik ezean, langileen beraien arteko akordio-bidez aparteko orduen kopurua eta/edo atseden-bidezko konpentsazioa finkatuko da.

10. artikulua. Jaiegunetako lanak.

Jarduerak hala eskatzen badu, berreskura ezineko jaiegunetan lan egitea beharrezko balitz, hauek ondokoen arabera konpentsatuko dira:

a) Langileak ohiko soldata hartuko du jaiegunean lan egiteagatik %75eko gehikuntzarekin, soldata bakoitzerako ondoko formularen arabera.

$$\frac{\text{Oinarrizko alokairua+ antzinatasuna}}{30} \times 1{,}75$$

Formula horren aplikaziorako, soldata maila bakoitzeko berreskuraezineko jaiegunaren balioa IV. Eranskinean jasotakoa da.

Kopuru horiek, bidezko balitz, antzinatasunaren arabera igoko dira.

b) Lan egindako jaiegunak beste une batean izateko aukera egongo da %50eko gehikuntzaz, egun horiek lan jarduntzat hartuko direlarik. Ondorio horretarako hitzarmenaren batzorde misto interpretatzaileak 82.10.18ko dataz emandako ebazpenaren edukia kontuan hartuko da, horren mamia ondokoa delarik:

«Asteko atsedenaren jaia jai ordaingarriarekin bat badator, hau konpentsatu beharko da, ezin izango delarik inolako kasuan zurgatu, zirkunstantzia hau ematen den egun bakoitzagatik egun librea izateko edo hari dagokion kopurua eskuratzeko aukera izango delarik».

Enpresak eta langileak ez badute lan egindako jaiegunak konpentsatzeko moduari buruz erabakirik hartzen, alde bakoitzak aukeretariko bat hautatu ahal izango du, lan egindako egunen erdiaren arabera.

Atsedena hautatzen duenak hura burutuko direneko datak ere hautatuko ditu, oporretako denboraldian metatu ahal izango direlarik, ondoko salbuespenekin:

— Jai-egunetako lana konpentsatze aldera, enpresak ondo etortzen zaion garaian ixteko erabakia hartzen badu, itxiera hori, gutxienez, segidako zazpi eguneko alditan egin beharko da, non eta segida hori ezinezkoa den, metatutako atsedena edo atsedenaren zatia ez bada nahikoa zazpi egun horiek osatzeko».

— Ezin izango da atsedenik hartu, hitzarmen honetako 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, oporrik burutu ezin daitekeen denboraldietan.

11. artikulua. Aparteko zerbitzuak.

Aparteko zerbitzutzat hartuko dira enpresako langileak bakarrik bete ez ditzakeen noizean behineko egintzak, oturuntza, lunch, ezkontza, taldeak (gosariak) bezalakoak.

Aparteko zerbitzuak burutzen dituzten langileek Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean kotizatu beharko dute, enpresek haiei alta eman, matrikula liburuan jaso eta INEMen egoera horren berri emateko beharra izango dutelarik hilabetero, langileen ordezkaritzari jakinarazpen horren kopia bat emango diotelarik.

En cualquier caso, los Delegados de Personal y miembros del Comité de Empresa, serán informados mensualmente de las horas extraordinarias que se hayan efectuado, así como de las causas que lo motivaron. Esta información irá firmada y sellada por la Empresa.

Mediante acuerdo entre la Dirección de la empresa y la representación de los trabajadores, o en ausencia de ésta con los propios trabajadores, se fijará la cuantía de las horas extras y/o su compensación mediante descanso.

Artículo 10.º Trabajos en días Festivos.

Si por necesidad de la actividad se hace preciso trabajar en días festivos no recuperables, éstos se compensarán de una de las maneras siguientes:

a) Percibiendo el trabajador el salario ordinario con un incremento del 75% por haber trabajado en festivo, con arreglo a la siguiente fórmula para cada nivel salarial:

$$\frac{\text{Salario Base + Antigüedad}}{30} \times 1{,}75$$

Como aplicación de esta fórmula, el valor del día festivo no recuperable para cada nivel salarial es el que se especifica en el Anexo IV.

Estas cantidades serán incrementadas por la antigüedad en su caso.

b) Disfrutar en otro momento los festivos trabajados con un aumento del 50%, teniendo estos días la consideración de laborables. A tal efecto se tendrá en cuenta el contenido de la resolución de la Comisión Mixta Interpretativa del Convenio de fecha 18.10.82, que sustancialmente dice:

«Cuando coincida la fiesta del descanso semanal con una fiesta abonable, ésta deberá ser compensada sin ser, en ningún caso absorbida, procediendo al disfrute o al cobro de un día por cada día en que se dé esta circunstancia».

Si entre la empresa y el trabajador no se pusieran de acuerdo en la manera de compensar los festivos trabajados, cada parte podrá elegir la que quiera de las alternativas, referida a la mitad de los días que se hayan trabajado.

Quien elija el disfrute elegirá también las fechas en que se realizará, pudiendo acumularse al período vacacional, con las siguientes excepciones:

— «Cuando la empresa decida cerrar para compensar el trabajo de los festivos en la fecha que tenga por conveniente, el cierre será, al menos, en períodos de siete días consecutivos excepto cuando el descanso acumulado o la fracción de éste no alcance tal número de días».

— El disfrute no podrá tener lugar en los períodos en los que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 16.º de este Convenio, no puedan hacerse vacaciones.

Artículo 11.º Servicios extraordinarios

Serán considerados servicios extraordinarios aquellos ocasionales tales como banquetes, lunchs, bodas, grupos (desayunos) que no puedan ser atendidos únicamente por el personal de la empresa.

Los trabajadores que realicen servicios extraordinarios, deberán cotizar en el régimen general de la Seguridad Social, estando obligadas las empresas a darles de alta, hacerles figurar en el Libro de Matrícula y a comunicar al INEM, cada mes, tal circunstancia, entregando copia de tal comunicación a la representación de los trabajadores.

Enpresako langileek zerbitzu horietan emandako orduak aparteko ordutzat hartuko dira eta inolaz ere aparteko zerbitzutzat, hitzarmen kolektibo honek ezartzen duenaren arabera.

Aparteko zerbitzuak V. eranskineko taularen arabera ordainduko dira.

Enpresa kokatzen deneko hiriko kaskotik kanpo burututako aparteko zerbitzuetan garraio gastuen abonoa barnebilduko da, bai eta dagokion mantenua ere.

Taulen muntaia beharrezko den aparteko zerbitzuen kasuko ordainketa enpresa eta langileek erabakiko dute elkarrekin.

Aparteko zerbitzuetako langileen uniformea langilearen kontura izango da.

— Mantenua.

Aparteko langileek mantenurako eskubidea izango dute hitzarmen kolektiboak euren hurrenez-hurreneko maila profesionaletarako.

— Sukaldeko aparteko langileak.

Sukaldeko aparteko langileak mantenu eskubidea izango du, maila bereizketarik gabe.

12. artikulua. Garraio plusa.

Plusa soldataz kanpoko kontzeptutzat jotzen da eta ondorioz, ez da Gizarte Segurantzan kotizagarri.

Bere zerbitzuak ematen dituzteneko lan zentrotik 2 kilometrokotik gorako distantzian egoitza duten langileek plus hau eskuratzeko onura izango dute.

Eskuratu beharreko kopurua lanera taldeko garraio publikoetan joatea ahalbide diezaiona izango da, eguneko bi bidaia ordainduko direlarik. Plus hau aipatutako garraioak gehitzen diren arabera gehituko da.

Hasierako kontratazioan garraio-plusa ezarri ondoren, emaitzazko kopuruak ez du gehikuntza nahiz urripenik izango ondoren langileak helbidea aldatzearen ondorioz.

Zurgapen eta konpentsazio teoria aplikagarri izango da hitzarmen honetan adierazitako soldata mailak baino altuagokoak ezartzen direnean.

Jarduerak hala galdatu eta langileak bere ohiko ordutegia aurreratu edo atzeratu behar duenean eta ondorioz taldeko garraiorik ez badu, enpresak ordaindu beharko ditu desplazamendu horiek.

III KAPITULUA

LAN-JARDUNALDIA; SANTA MARTA; BAIMENAK ETA LIZENTZIAK; OPORRAK; GAUEKO TXANDA

13. artikulua. Lan-jarduna.

Urteko lanaldi arrunta 2008. urtean 1.731 ordukoa izango da, 1727koa 2009/01/01etik 2009/12/31ra, eta 1.723koa 2010/01/01etik 2010/12/31ra.

Enpresaren ekimenez langileari asteko atsedena aldatzen bazaio eta betiere, honek onartzen badu, jaiegunaren balioa eskuratzeko eskubidea izango du edo denbora %150arekin konpentsatzeko, atsedena hurrengo astean hartu beharko duelarik.

Las horas realizadas por los trabajadores de la propia empresa en dichos servicios, serán consideradas como horas extraordinarias y en ningún caso como servicios extraordinarios, tal y como establece Convenio Colectivo.

Los servicios extraordinarios, se retribuirán con arreglo a la Tabla del Anexo V.

Los servicios extraordinarios que se realicen fuera del casco urbano en el que radique la empresa, llevarán aparejado el abono de los gastos de transporte y asimismo, la manutención correspondiente.

En los casos de servicios extraordinarios en el que sea necesario el montaje de tableros, la retribución se acordará entre la empresa y los trabajadores.

El uniforme de los trabajadores de servicios extraordinarios será por cuenta del trabajador.

— Manutención:

El personal extra tendrá derecho a manutención cuando así lo disponga el presente Convenio colectivo para sus respectivas categorías profesionales.

— Personal extra de cocina.

El personal extra de cocina tendrá derecho a manutención, sin distinción de categorías.

Artículo 12.º Plus de transporte.

Este plus se considera como concepto extrasalarial y, en consecuencia no cotizable a la Seguridad Social.

De este plus se beneficiarán todos aquellos trabajadores, cuyo lugar de residencia habitual esté situado a más de 2 kms. del centro de trabajo donde preste sus servicios.

La cuantía a percibir, será la necesaria para acudir al trabajo en transportes públicos colectivos, abonándose dos viajes al día. Este plus se aumentará en la cuantía en que sean aumentados dichos transportes.

Una vez establecido el plus de transporte en la contratación inicial, la cantidad resultante no sufrirá incremento ni disminución alguna por posteriores modificaciones del domicilio del trabajador.

Operará la teoría de absorción y compensación únicamente cuando se tengan establecidos unos niveles salariales superiores a los señalados en el presente Acuerdo.

Cuando, por necesidades de la actividad, el trabajador deba adelantar o atrasar su horario habitual y por esta causa no existan medios de transporte colectivos, la empresa estará obligada a abonar el coste de estos desplazamientos.

CAPÍTULO III

JORNADA DE TRABAJO; SANTA MARTA; PERMISOS Y LICENCIAS; VACACIONES; NOCTURNIDAD

Artículo 13.º Jornada de trabajo.

La jornada anual ordinaria de trabajo será de 1.731 horas durante el año 2008, 1727 horas para el período 01.01.09 a 31.12.09 y de 1.723 para el periodo 01.01.10 a 31.12.10.

En los casos que por iniciativa de la empresa le sea modificado el descanso semanal al trabajador y siempre y cuando lo acepte, tendrá opción a que le sea abonado a valor del día festivo o compensar en tiempo con el 150% debiendo disfrutar el descanso durante la siguiente semana.

Jarraikako lan-jardunen kasuan, langileak atsedeneko 15 minutuko etena izateko eskubidea izango du, lan efektiboko denboratzat hartuz.

Orain arte langileek 15 minutuz gorako atsedenak izan dituzten enpresetan, ezarritako lan-jardun berriak zurgatu eta konpentsatuko du aipatu atsedena, 15 minututik gorako denborari dagokionez.

Lan-jardun zatitua duen langileak txanda tartean gutxienez ordu beteko atsedenerako eskubidea izango du.

Asteko atsedena egun t`erdi efektibokoa izango da.

Enpresa mailan asteko atseden egunen artean igandea barnebiltzea erabaki dadinean, ukitutako langile guztiek eskubide horretarako aukera izango dute txandaka.

Segidako bi eguneko atsedena 30 langiletik gorako enpresetan. Aste arteko atseden hau bi egunetakoa izango da: Bi egun efektibo eta etenik gabekoak. Nolanahi, ez da izango derrigorrean betetzeko atsedena 30 langiletik gorako enpresetan, baldin eta segidako bi egun horiek hartuta, asteko funtzionamenduko ordutegiarekin ezin bada bete urterako finkatutako lan-jarduna.

Hobekuntza hau 2009ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, baina soilik hitzarmen honetako 2. artikuluko 3) eta 4) ataletan agertzen diren jarduerak egiten dituzten enpresetako langileei aplikatuko zaie.

Xedapen hau berria denez eta ez dagoenez argi zer-nolako ondorioak izango dituen, aplikazioa 2010. urteko abenduaren 31 arte luzatuko da. Egun horretan automatikoki baliogabetu egingo da, non eta Hitzarmena Interpretatzeko Batzorde Mistoak ez duen erabakitzen, ordu arteko esperientziaren argitan, xedapena hitzarmenean sartzea behin betiko.

— Lan-egutegia:

Enpresek, enpresa batzordearen edo, halakorik ezean, langileen ordezkarien partaidetzarekin, urte natural bakoitzeko urtarrilean zehar laneko egutegia egin beharko dute, bertan urteko lanegunak eta oporraldia nahiz oporraldiak jasoko direlarik.

Lan-egutegietan eta ordu-tauletan lan-jarduna irregularki jasotzen den kasuan, langileen legezko ordezkaritzaren erabakia beharrezkoa izango da, lan efektiboaren ordu-kopuruak Langileen Estatutuaren 34.3 artikuluan adierazitakoa gainditzen duenean.

Aipatutako egutegiak Lan Sailak zehazten dituen jaiegunak eta oporrak hartzeko datak barne hartu beharko ditu.

14. artikulua. Santa Marta jaia.

Santa Martaren jaia, uztailak 29, jai abonagarritzat hartuko da ondorio guztietarako.

15. artikulua. Baimenak eta lizentziak.

A) Ordainduak.

Langilea, aldez aurretiko jakinarazpen eta justifikazioz lanean huts egin ahal izango du ordainketa eskuratzeko eskubidez, ondoko arrazoiengatik eta honako denbora honetan zehar:

a) Ezkontzagatik 17 egun, oporren kargura 11 egun gehitu ahal izango direlarik, oporretarako hilabeteak ez diren kasuan salbu.

b) 4 egun, aurrerago xehekatuko diren kasuetan zabaldu ahal izango direnak, gaixotasun larria edo ezkontide eta semealaben heriotzagatik.

En los supuestos de jornada continuada, el trabajador tendrá derecho a 15 minutos ininterrumpidos de descanso, que se considerarán como tiempo de trabajo efectivo.

En aquellas empresas en que los trabajadores vinieran disfrutando de un descanso quedará absorbido y compensado por la nueva jornada establecida en lo que exceda de 15 minutos.

El trabajador con jornada partida, tendrá derecho a un descanso de una hora como mínimo entre turno y turno.

El descanso semanal será de día y medio efectivo.

Cuando se haya acordado, a nivel de empresa, que entre los días de descanso semanal figure el domingo, todos los trabajadores afectados disfrutarán de este derecho rotativamente.

Descanso de dos días consecutivos en empresas con plantillas superior a 30 trabajadores. Este descanso intersemanal será de dos días efectivos e ininterrumpidos y no será obligatorio en Departamentos de empresas con plantilla superior a 30 trabajadores pero cuyo horario de funcionamiento semanal no permita cumplir la jornada anual estipulada con la aplicación de los dos días consecutivos.

Esta mejora entrará en vigor el 1 de enero de 2009 y será aplicable sólo a los trabajadores de las empresas cuyas actividades se encuentren recogidas en los apartados 3) y 4) del artículo 2.º de este convenio.

Dada la novedad de la presente disposición y los efectos imprevistos que pueda producir, su aplicación se extenderá hasta el 31 de diciembre del 2010, y llegada dicha fecha quedará automáticamente sin efecto a no ser que la Comisión Mixta Interpretativa del Convenio, a la vista de la experiencia habida, decida su incorporación indefinida al mismo.

— Calendario laboral:

Las Empresas confeccionarán los Calendarios de Trabajo, con intervención del Comité de Empresa o Delegados de Personal en su defecto, durante el mes de enero de cada año indicando los días de trabajo del año y el período o períodos de vacaciones.

En el supuesto de que los Calendarios de Trabajo y cuadros horarios contengan una distribución irregular de la jornada de trabajo, será necesario el acuerdo de la representación legal de los trabajadores cuando el número de horas diarias de trabajo efectivo supere las señaladas en el artículo 34.3 del Estatuto de los Trabajadores.

Dicho calendario deberá incluir las fiestas que determine el Departamento de Trabajo y las fechas hábiles para el disfrute de las vacaciones.

Artículo 14.º Festividad de Santa Marta.

El día 29 de julio, festividad de Santa Marta, tendrá la consideración de fiesta abonable a todos los efectos.

Artículo 15.º Permisos y Licencias.

A) Remunerados.

El trabajador previo aviso y justificación podrá ausentarse del trabajo con derecho a remuneración por alguno de los motivos y por el tiempo siguiente:

a) 17 días en caso de matrimonio, pudiendo ampliarse en 11 días más con cargo a vacaciones, a excepción de los meses exceptuados del disfrute de vacaciones.

b) 4 días, que podrán ampliarse en los casos que luego se expondrán, con motivo de enfermedad grave o fallecimiento del cónyuge e hijos.

c) 3 egun, aurrerago xehekatuko diren kasuetan zabaldu ahal izango direnak, langilearen edo ezkontidearen aita, ama, biloba, aiton-amona, anai-arreba, edo izeba-osabaren heriotzagatik.

b) eta c) atalen ondorioetarako hitzarmenaren batzorde misto interpretatzailearen ebazpena kontuan hartuko da, bertan ondokoa esaten duelarik. «Gaixotasun larritzat jotzen da ez bakarrik medikuak hala ziurtatzen duenean, bai eta mediku horrek gaixo dagoen eriarentzat senide baten laguntza beharrezkoa irizten duenean ere».

d) 3 egun, emazteak erditzeagatik baimenari 2 egun gehituko zaizkiolarik, erditzea zesarea bidez egiten denean.

e) Egun bat ohiko helbidea lekualdatzeagatik.

f) Behar den denboraz, izaera publiko edo pertsonaleko eginbehar saihestezinak betetzeko, horien barne hartuko direlarik Lan Agintaritza edo Judizialaren aurreko aurkezpenak, aldez aurretiko dei gutunarekin.

g) Egun bat seme-alaben bataioagatik.

h) Egun bat seme-alaba, ezkontidearen anai-arreba, guraso edo anai-arreben ezkontzagatik.

i) Egun bat seme-alaba eta anai-arreben jaunartzeagatik.

j) Behar den denboraz, langilea Gizarte Segurantzako espezialistarekin kontsulta medikora joaten den kasuetan, kontsultaren ordutegia lanorduekin bat etortzen denean, medikuntza orokorreko medikuak kontsulta hori agintzen badu, langileak aldez aurretik agindu medikuaren frogagiria enpresariari aurkeztu beharko diolarik. Gainerako kasuetan, langileak urtean bost ordu ordaindu izango ditu, halaber frogatu beharko dituelarik.

k) Bularra emateko orduak pilatzea (soilik hitzarmen honetako 2. artikuluko 3) eta 4) ataletan agertzen diren jarduerak egiten dituzten enpresetako langileei aplikatuko zaie).

